



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

Imanol Zubizarreta Arteche

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 5/2023 ebazpena

Recurso 17/2022 errekurtsua

AGISAS - GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri du udal txikietan haur, nerabe eta gazteen sustapenerako programa bat diseinatu eta gauzatzeko zerbitzua kontratatze baldintza agiriaren aurka (expediente kodea: G22-003). Bada, errekurtsu berezi hori dela-eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko bileran, goian aipatutako kideak bertan daudela, erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos para la contratación del servicio de diseño y ejecución de un programa para la promoción de la infancia, adolescencia y juventud en municipios pequeños de Gipuzkoa - Txikiak, nerabeak eta gazteak udal txikietan (código de expediente: G22-003), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- Auzitegi honetako erregistro elektronikoa 2022ko irailaren 19an aurkeztutako idazkiaren bidez, AGISAS elkarteak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako egintzaren aurka. Errekutsoaren erregistro zenbakia 17/2022 da.

BIGARRENA.- Irailaren 20an Auzitegiak Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kiroletako Departamentuari igorri zion errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion.

HIRUGARRENA.- Abenduaren 13an, eskatutako dokumentazioa jaso ez zenez, Auzitegiak berriro eskatu zion dokumentazio bera, eta azkenean

ANTECEDENTES

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 19 de septiembre de 2022 AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución; recurso que quedó registrado con el número 17/2022.

SEGUNDO.- El día 20 el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe.

TERCERO.- El 13 de diciembre, no habiéndose recibido la documentación requerida, el Tribunal realizó un nuevo requerimiento de la misma

abenduaren 19an jaso zen.

LAUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsoaren berri eman zitzairen HORBEL GIZARTE EKIMENEN KOOPERATIBARI eta KALEXKA GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZE ELKARTEARI, eta bost eguneko epea eman zitzairen alegazioak aurkezteko. Epea igaro da, eta lizitatzaileretako inork ez du alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Errekurtsoa 125.030,76 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka jarri da.

Beraz, egintza horri errekurtso berezia jar dakiok kontratazio arloan, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikuluan 1.a) eta 2.a) zatietan.

BIGARRENA.- Eskumena.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administrazioa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baita.

HIRUGARRENA.- Epea.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.b) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia 2022ko abuztuaren 29an argitaratu zela Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma barruan dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratatzailearen profilean, eta errekurtsoa 2022ko irailaren 19an aurkeztu zela.

LAUGARRENA.- Legitimazioa.

Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu SPKLk 48. artikuluan,

documentación, recibíéndose finalmente el 19 de diciembre.

CUARTO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP se dio traslado del recurso a HORBEL KOOPERATIBA DE INICIATIVA SOCIAL y a la ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA KALEXKA, concediéndoles un plazo de cinco días para formular alegaciones. Transcurrido el plazo, ninguna de las dos licitadoras ha presentado alegaciones.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- Objeto.

El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 125.030,76 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 LCSP.

SEGUNDO.- Competencia.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

TERCERO.- Plazo.

El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación se publicó el día 29 de agosto de 2022 en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, y el recurso se interpuso el día 19 de septiembre de 2022.

CUARTO.- Legitimación.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el



eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedearekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarteak delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzeko dituelako.

artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.

QUINTO.- La actuación recurrida.

2022ko abuztuaren 29ko Foru Aginduaren bidez, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak arestian aipatutako kontratazio espedienteak onartu zuen (G22-003 espedienteak), bai eta administrazio klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoaren agiria (PTA) ere.

Mediante Orden Foral de 29 de agosto de 2022, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes aprobó el expediente de contratación anteriormente señalado (expediente G22-003), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT).

AKPAren ezaugarrien taulako 14.3 atalak baldintza hauek ezartzen dizkie kontratuan parte hartzen duten teknikariei:

El apartado 14.3 del cuadro de características del PCAP establece como condición para el personal técnico participante en el contrato lo siguiente:

*«Talde teknikoa, gutxienez, **bi gizarte hezitzailek osatuko dute**, edo bestela, haur, nerabe eta gazteen sustapen esparruan bi urteko gutxienezko eskarmentua dutenak.»*

*"El equipo técnico **estará constituido**, como mínimo, **por dos educadores sociales** o en su defecto, personas con una experiencia mínima de dos años en el ámbito de la promoción de la infancia, adolescencia y juventud."*

Baldintza agiri horien aurrean, AGISAS elkarteak kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu zuen, inolako justifikaziorik gabe eta, beraz, modu arbitrarioan, Gizarte Heziketako unibertsitate titulua duten pertsonen aldeko erreserba edo, gutxienez, diskriminazio tratamendua ezarri zela iritzita.

Frente a estos pliegos AGISAS interpone recurso especial en materia de contratación al considerar que se establece, sin justificación alguna y, por tanto, de modo arbitrario, una reserva o, al menos, un tratamiento discriminatorio, en favor de las personas que ostentan una titulación universitaria en Educación Social.

SEIGARRENA.- Errekurtsoaren arrazoiak.

SEXTO.- Los motivos del recurso.

AGISASek uste du, AKPAren ezaugarrien taulako 14.3 puntuan ezarritakoaren arabera, kaudimen teknikoa edo profesionala egiazta daitekeela talde teknikoan haurrak eta gazteak sustatzeko arloan bi urteko esperientzia duten bi pertsona sartuz, eta esperientzia horren ordezkari soilik baimentzen dela egiaztatzea Gizarte Heziketako unibertsitate titulua lortu izana.

AGISAS estima que, de acuerdo con lo establecido en el ya señalado punto 14.3 del cuadro de características del PCAP, la solvencia técnica o profesional se puede acreditar incluyendo en el equipo técnico dos personas con dos años de experiencia en el ámbito de la promoción de la infancia y la juventud, y que únicamente se permite sustituir dicha experiencia

acreditando haber obtenido una titulación universitaria en Educación Social.

Egoera hori, bere ustez, diskriminatzailea da animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikarien (ASTGT) eta gizarteratzeko goi mailako teknikarien (GGT) kolektiboekiko; izan ere, haien prestakuntzak, dagozkien curriculumak ezartzen dituzten dekretuetan ezarritakoaren arabera, gaitasun profesional nahikoak eta egokiak ematen dizkie preskripzio teknikoan agirian gizarte hezitzaile deitzen zaienentzat aurreikusitako eginkizunak garatzeko.

Kontratuaren xederako iragarritako helburuen eta preskripzio teknikoan agiriaren 6. puntuan ezarritako ezaugarrien analisitik abiatzen da bere argudioa.

ASTGTei dagokienez, Lanbide Heziketako titulu horri dagokion curriculumak ezartzen duen uztailaren 2ko 373/2013 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, titulu hori lortu dutenek Dinamizazio Komunitarioko lanbide kualifikazioak dituzte SSC321_3 (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa) eta Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak zuzendu eta koordinatzeko SSC565_3 (567/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa). Horrela, kontratuaren xede diren jarduerak egiteko gaitasuna eta gaitasun profesionala egiaztatzen dira, gutxienezko esperientzia egiaztatu beharrik gabe.

Aipatutako dekretuaren 3. artikuluan 2. atalean sartzen diren eta kontratuaren xedarekin zerikusia duten gaitasun profesionalak aipatzen ditu, zehazki honako hauek:

«a) Informazioa eskuratzea, errealitatea aztertze baliabideak, estrategiak eta tresnak erabilita, hartzaileen beharrei eta testuinguruaren beharrei egokitzeko esku-hartze soziokulturala.

c) Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak ezartzeko modua zuzentzea, bere kargura dauden profesionalen eta boluntarioen jardunak koordinatuz, jarduerak kalitate-irizpideekin egiten diren gainbegiratzuz eta talde-lana erraztuz.

Esta circunstancia constituye, a su juicio, un trato discriminatorio frente a los colectivos de Técnicos Superiores en Animación Sociocultural y Turística (TSAST) y Técnicos Superiores en Integración Social (TSIS), cuya formación, de acuerdo con lo establecido en los decretos por los que se establecen los correspondientes currículos, les atribuye competencias profesionales suficientes y apropiadas para desarrollar las funciones previstas en el PPT para lo que se denominan como “educadores/as sociales”.

Su argumento parte de un análisis de los objetivos anunciados para el objeto del contrato y de las características que se establecen en el punto 6 del PPT.

En relación con los TSAST, considera que, de lo dispuesto en el artículo 3 del Decreto 373/2013, de 2 de julio, por el que se establece el currículo correspondiente a este título de formación profesional, quienes lo han obtenido ostentan las cualificaciones profesionales de Dinamización comunitaria SSC321_3 (Real Decreto 1368/2007, de 19 de octubre) y de Dirección y coordinación de actividades de tiempo libre educativo infantil y juvenil SSC565_3 (Real Decreto 567/2011, de 20 de abril). Con ello se acredita su habilitación y capacitación profesional para desempeñar las actividades objeto del contrato sin necesidad de acreditar además una experiencia mínima.

Cita las competencias profesionales que se incluyen en el apartado 2 del artículo 3 del señalado Decreto, y que tienen que ver con el objeto del contrato, refiriéndose concretamente a las siguientes:

"a) Obtener información, utilizando recursos, estrategias e instrumentos de análisis de la realidad, con el fin de adecuar la intervención sociocultural a las necesidades de las personas destinatarias y al contexto.

c) Dirigir la implementación de proyectos de intervención sociocultural, coordinando las actuaciones de los profesionales y voluntarios a su cargo, supervisando la realización de las actividades con criterios de calidad y facilitando el trabajo en equipo.



d) *Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak sustatu eta hedatzeko espazioak, estrategiak eta materialak diseinatzea, komunikazioaren arloko aurrerapen teknologikoak aplikatuz.*

e) *Animazio soziokulturaleko eta turistikoko sail, programa eta jarduerak antolatzea, dokumentazioa eta baliabideak kudeatuz, baita esleitutako aurrekontuaren kontrol eta finantzaketa ere.*

g) *Jarduera ludikoak, kulturalak, fisikoak eta olgetakoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, metodologia-estrategiak hautatuz, baliabideak antolatuz eta jarduera garatzeko behar diren ekipo eta bitarteko teknikoak erabiliz.*

j) *Gazteentzako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, aukera-berdintasuna erraztuz eta hezkuntza ez-formalaren printzipioak aplikatuz.*

k) *Taldeak dinamizatzea, parte hartzeko eta dinamizatze teknika aplikatuz, gatazkak kudeatuz eta errespetua eta elkartasuna sustatuz.*

p) *Lantaldeak arduraz antolatu eta koordinatzea, haien garapena gainbegiratzuz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz, eta lantaldean sortzen diren gatazkak konpontzeko aterabideak proposatuz.*

u) *Dagokion jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturalean aktiboki parte hartuz.»*

Aurrekoarekin batera, errealizazio profesionalak eta titulazio horri dagozkion errealizazio-irizpideak ere aipatzen ditu, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrendaren arabera, urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretuan eta apirilaren 20ko 567/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera; bi arau horiek katalogo hori osatzera bideratuta daude.

GGTei dagokienez, ASTGTetarako erabilitako argudio-egitura berari jarraitzen dio, eta, kasu honetan, Lanbide Heziketako titulu horri dagokion curriculum ezartzen duen apirilaren 15eko 63/2014 Dekretuan xedatutakoa aipatzen du.

d) *Diseñar espacios, estrategias y materiales de promoción y difusión de proyectos de intervención sociocultural, aplicando los avances tecnológicos del ámbito de la comunicación.*

e) *Organizar departamentos, programas y actividades de animación sociocultural y turística, gestionando la documentación y los recursos, así como la financiación y el control del presupuesto asignado.*

g) *Diseñar, implementar y evaluar actividades lúdicas, culturales y físico-recreativas, seleccionando las estrategias metodológicas, organizando los recursos y manejando los equipos y medios técnicos necesarios para su desarrollo.*

j) *Diseñar, implementar y evaluar actividades socioeducativas dirigidas a la población juvenil, favoreciendo la igualdad de oportunidades y aplicando los principios de la educación no formal.*

k) *Dinamizar grupos, aplicando técnicas participativas y de dinamización, gestionando los conflictos y promoviendo el respeto y la solidaridad.*

p) *Organizar y coordinar equipos de trabajo con responsabilidad, supervisando el desarrollo del mismo, manteniendo relaciones fluidas y asumiendo el liderazgo, así como aportando soluciones a los conflictos grupales que se presenten.*

u) *Ejercer sus derechos y cumplir con las obligaciones derivadas de su actividad profesional, de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente, participando activamente en la vida económica, social y cultural."*

Junto con lo anterior, alude también a las realizaciones profesionales y a los criterios de realización que corresponden a esta titulación, de acuerdo con la Relación de Cualificaciones y unidades de competencia del Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales, a tenor de lo dispuesto en el Real Decreto 1368/2007, de 19 de octubre, y en el Real Decreto 567/2011, de 20 de abril; ambas normas dirigidas a complementar el citado Catálogo.

Con respecto a los TSIS, sigue la misma estructura argumental utilizada para los TSAST, aludiendo en este caso a lo dispuesto en el Decreto 63/2014, de 15 de abril, por el que se establece el currículo correspondiente a este título de formación profesional.

Kasu honetan, aipatutako dekretuaren 3. artikulua ezartzen du GGT tituluak, besteak beste, Autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunen hezkuntzako lanbide-kualifikazioak SSC090_3 (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa) eta Dinamizazio komunitarioko lanbide-kualifikazioak SSC321_3 (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa) jasotzen dituela.

Azken kualifikaziori dagokionez, azpimarratzen du kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako gaitasun bat ere baduela, hala nola «*garapen komunitarioko jarduerak programatu, antolatu, bultzatu eta ebaluatzea esku-hartze taldearekin, erakundeekin eta gizarte eragileekin lankidetzan, herritarren parte hartzea eta inplikazio aktiboa bultzatzeko prozesu komunitarioak antolatzearen.*»

Kasu honetan, halaber, GGTren kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak jasotzen ditu, honako hauek aipatuta:

«c) Proiektuaren garapenari lotutako administrazio-egintzak gauzatzea; hartarako, sortutako dokumentazioa kudeatzeko, komunikazio- eta informazio-teknologiak aplikatuko ditu.

i) Autonomia sozialeko eta pertsonaleko abilezietan trebatzeko jarduerak antolatu eta garatzea, eta lortutako emaitzak ebaluatzea.

ñ) Jarrera autokritikoarekin egitea esku-hartzearen kontrola eta jarraipena, antzemandako desbideratzeak zuzentzeko atzeraelikadura-prozedurak eta kalitate-irizpideak aplikatuz.

r) Lantaldeak arduraz antolatu eta koordinatzea, haien garapena gainbegiraturaz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz, eta lantaldean sortzen diren gatazkek konpontzeko aterabideak proposatuz.

w) Dagokion jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartzea.»

Errekurtsoa babesteko, partzialki jasotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Lehen Sekzioaren martxoaren 23ko 116/2021 Epaiaren argudioa (ECLI ES: TSJP: 2021:970), Gipuzkoako Foru Aldundiak lizitatutako kontratu baten esleipena arautzen zuten baldintza agiriari

En este caso, el artículo 3 del citado Decreto establece que el título de TSIS incorpora, entre otras, las cualificaciones profesionales de Educación de habilidades de autonomía personal y social SSC090_3 (Real Decreto 295/2004, de 20 de febrero) y de Dinamización comunitaria SSC321_3 (Real Decreto 1368/2007, de 19 de octubre).

Con respecto a esta última cualificación, recalca que incluye también una competencia que está directamente vinculada con el objeto del contrato como es la de "*Programar, organizar, apoyar y evaluar actuaciones de desarrollo comunitario, en colaboración con el equipo de intervención, las instituciones y agentes sociales, en la articulación de procesos comunitarios que potencien la participación e implicación activa ciudadana.*"

Incorpora también en este caso las competencias profesionales, personales y sociales del TSIS, citando las siguientes:

"c) Realizar actuaciones administrativas asociadas al desarrollo del proyecto, aplicando las tecnologías de la información y la comunicación para gestionar la documentación generada.

i) Organizar y desarrollar actividades de entrenamiento en habilidades de autonomía personal y social, evaluando los resultados conseguidos.

ñ) Realizar el control y seguimiento de la intervención con actitud autocrítica y aplicando criterios de calidad y procedimientos de retroalimentación para corregir las desviaciones detectadas.

r) Organizar y coordinar equipos de trabajo con responsabilidad, supervisando el desarrollo del mismo, manteniendo relaciones fluidas y asumiendo el liderazgo, así como aportando soluciones a los conflictos grupales que se presenten.

w) Ejercer sus derechos y cumplir con las obligaciones derivadas de su actividad profesional, de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente, participando activamente en la vida económica, social y cultural".

En apoyo del recurso incorpora parcialmente la argumentación de la sentencia 116/2021, de 23 de marzo, de la Sección Primera de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (ECLI ES:TSJP:2021:970), referida a los pliegos que regían la adjudicación de un contrato licitado por



buruzkoa. Kontratu horrek genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta jasotzen zuen xedean.

Azkenik, SPKLren 76.3 artikuluan xedatutakoa aipatzen du; horren arabera, *«kontratistaren sailkapenerako kaudimen-baldintza gehigarri moduan bitarteko pertsonal edo materialak atxikitzea zentzuz, justifikatuta eta entitatearekiko eta kontratuaren izaerarekiko eta ezaugarriekiko modu proportzionalean egingo da, halako moduz non ez duen mugatuko enpresek lizitazioan parte har dezatela».*

Azaldutako argudioei jarraiki, errekurtsoaren helburua da animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikari tituludunen eta gizarteratzeko goi mailako teknikari tituludunen kaudimen teknika eta profesionala aitortzea, preskripzio teknikoen agiriko 6. paragrafoan aipatutako kontratuaren xedearen "ezaugarriak" betetzeko.

ZAZPIGARRENA.- kontratatzailearen jarrera.

Kasu honetan, entitate kontratatzailearen jarrera Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Idazkaritza Teknikoak egindako txostenean islatzen da.

Txosten horrek erakusten du departamentuan harridura eragin duela, hain zuzen ere, kolektiboaren interesak defendatzen dituen elkarteak berak interpretazio hain murriztailea egiteak AKPAn kaudimen teknikoari buruz xedatutakoaren inguruan.

Bere ustez, preskripzio teknikoen agiriak «hezitzaileak» aipatzen ditu, baina ez du gehitzen gizarte-hezitzaile hitza, eta ez du inolako titulaziorik aipatzen.

Administrazio klausula partikularren agiriari dagokionez, onartzen du ezaugarrien taulako 14.3 puntuak "gizarte hezitzaile" hitza gehitzen duela, baina ez da titulazio zehatzik eskatzen, ezta titulazio hori egiaztatzeko beharrik ere. Titulurik

la Diputación Foral de Gipuzkoa, que incluía en su objeto la atención de mujeres víctimas de violencia de género.

Finalmente, alude a lo dispuesto en el artículo 76.3 LCSP, según el cual *“la adscripción de los medios personales o materiales como requisitos de solvencia adicionales a la clasificación del contratista deberá ser razonable, justificada y proporcional a la entidad y características del contrato, de forma que no limite la participación de las empresas en la licitación”.*

En atención a los argumentos expuestos, el petitum del recurso se concreta en que se reconozca la solvencia técnica y profesional de los/las titulados/as Técnicos/as Superiores en Animación Sociocultural y Turística y de los/las titulados/as Técnicos/as Superiores en Integración Social para desempeñar las diferentes "características" del objeto del contrato mencionadas en el apartado 6 del PPT.

Erakunde SEPTIMO.- Posición de la entidad contratante.

La posición de la entidad contratante se refleja en este caso en el informe emitido por la Secretaría Técnica del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes.

Este informe muestra la sorpresa que ha causado en el departamento el hecho de que sea la propia asociación que defiende los intereses del colectivo quien haga una interpretación tan restrictiva de lo dispuesto en el PCAP acerca de la solvencia técnica.

Considera que el PPT se refiere a “educadores”, pero que no añade el vocablo “sociales” ni hace referencia a titulación alguna.

En cuanto al PCAP, admite que el punto 14.3 del cuadro de características añade el vocablo “sociales” tras la palabra “educadores”, pero tampoco consta la exigencia de ninguna titulación en concreto, ni la necesidad de acreditarla. Incluso

izan ezean ere, nahikoa izango litzateke esperientzia egiaztatzea.

Ulertzen du, beraz, administrazio klausula partikularren agiriaren irakurketa logiko batek aukera ematen duela ondorioztatzeko ez dagoela AGISAS elkarteak erreklamaturako diskriminaziorik edo tratu-desberdintasunik; izan ere, kontratazio organoaren ikuspegitik, zalantzarik gabe edozein titulaziori irekita uzten zaio deialdira aurkezteko eta kontratua egikaritzeko aukera eta, titulaziorik izan gabe ere, horren ordezkari eskatzen den esperientzia egiaztatzen duen orori.

Laburbilduz, errekurtsioa ezesteko eskatzen du, elkartearen eskaera beteta dagoela iritzita, lizitazioa eta kontratuaren xedea arautzen dituzten agerietan adierazten diren baldintzetan.

Auzitegiaren oharra

ZORTZIGARRENA.- Hasierako hurbilketa gisa, auzitegi honek interesgarritzat jotzen du lanbide tituludunen gaitasunei buruzko jurisprudenzia doktrina gogoratzea. Doktrina horrek behin eta berriz adierazi izan du kontratazio publikoaren eremuan lehentasuna ematen zaiola egokitasuna duen askatasunaren printzipioari, eskusibotasunaren eta gaitasun monopolioaren aldean, eta kontratu-errekurtsioen organoen ebazpenetan ere txertatu da [besteak beste, Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiaren (KEAAN) 319/2015 edo 1051/2021 ebazpenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoaren (KEAO) 21/2022 edo 62/2022 ebazpenak, eta Foru Auzitegi honen 9/2018 eta 1/2019 ebazpenak]. Horien artean, interesgarria iruditzen zaigu Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsioen Administrazio Organoak 62/2022 ebazpenean adierazitakoa partzialki errepikatzea; izan ere, doktrina hori laburtzeaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak martxoaren 23ko 116/2021 epaian, errekurtsiogileak aipaturakoan, azaldutakoa ere jasotzen du, eta kontuan hartzen du:

en ausencia de cualquier titulación bastaría acreditar la experiencia.

Entiende, por tanto, que una lectura lógica del PCAP permite concluir que no existe la discriminación o falta de igualdad de trato reclamada por AGISAS, puesto que, desde el punto de vista del órgano de contratación, *“es indudable que se deja abierta la opción de concurrir y ejecutar el contrato a cualquier titulación e incluso a quien careciendo de ella acredite la experiencia exigida alternativamente”*.

En definitiva, solicita que se desestime el recurso al considerar que la petición de la asociación ya se encuentra satisfecha en los términos en los que se expresan los pliegos que rigen la licitación y el objeto del contrato.

Apreciaciones del Tribunal.

OCTAVO.- Como aproximación inicial, este Tribunal considera de interés recordar la doctrina jurisprudencial relativa a las competencias de las profesiones tituladas. Esta doctrina viene señalando de forma reiterada la prevalencia en el ámbito de la contratación pública del principio de “libertad con idoneidad” sobre el de exclusividad y monopolio competencial, y ha sido también incorporada a resoluciones de los diferentes órganos de recursos contractuales [entre otras, resoluciones 319/2015 o 1051/2021 del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC); resoluciones 21/2022 o 62/2022 del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (OARC), y resoluciones 9/2018 y 1/2019 de este Tribunal Foral]. De entre ellas, consideramos interesante reproducir parcialmente lo señalado por el OARC en su resolución 62/2022, dado que, además de sintetizar esta doctrina, incorpora y tiene en cuenta también lo expuesto por el TSJPV en su sentencia 116/2021, de 23 de marzo, citada por la asociación recurrente:



“Por lo que se refiere a la exigencia en los pliegos de titulaciones concretas para las personas que vayan a adscribirse a la ejecución del contrato, este OARC / KEAO ha venido siguiendo el criterio que se resume en el principio de “libertad con idoneidad” (ver, por todas, sus Resoluciones 159/2020 y 171/2021), que parte de que el artículo 36 de la Constitución Española establece que la ley regulará las peculiaridades propias del régimen jurídico de los Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas. Por su parte, la sentencia del Tribunal Constitucional de 21 de enero de 1998 establece, sobre la reserva legal para el ejercicio de profesiones tituladas, que se debe (...) determinar si una norma con rango de ley contempla una profesión titulada, es decir una profesión cuya posibilidad de ejercicio quede jurídicamente subordinada a la posesión de títulos concretos. Por ello, en el caso de no existir la citada reserva legal, debe prevalecer el citado principio, ya que “...al existir una base de enseñanzas comunes entre algunas ramas de enseñanzas técnicas, estas dotan a sus titulados superiores de un fondo igual de conocimientos técnicos que, con independencia de las distintas especialidades, permiten el desempeño de puestos de trabajo en los que no sean necesarios unos determinados conocimientos sino una capacidad técnica común y genérica que no resulta de la situación específica obtenida sino del conjunto de los estudios que se hubieran seguido” (ver la STS de 19/10/2015, recurso nº 1482/2013, ECLI:ES:TS:2015:4314, recogiendo la del mismo Tribunal de 22/4/2009, y todas las que cita; ver también la sentencia de 23/3/2021 del TSJPV, recurso nº 482/2020, ECLI:ES:TSJPV:2021:970).”

Ondorio praktikoetarako, doktrina hori aplikatzeak esan nahi du irispide-askatasunaren printzipio orokorrari eragiten dion kontratazio-arloko edozein muga legezko erreserba baten ondorio izan behar dela, edo, gutxienez, kontratazio espedientean argi eta garbi islatutako justifikazio nahikoa eta egoki baten ondorio. Horrela bakarrik eskatu ahal izango da kaudimen teknikoaren betekizun gisa titulazio espezifiko jakin batzuk dituzten pertsonak kontratuan sartzea, kontratuaren xedearekin lotura handiagoa edo txikiagoa izan dezaketen beste titulazio batzuk alde batera utzita. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak (KEAN), apirilaren 10eko 319/2015 ebazpenean, honela adierazi zuen inguruabar hori:

A efectos prácticos, la aplicación de esta doctrina supone que cualquier limitación en materia de contratación que afecte al principio general de libertad de acceso debe responder a la existencia de una reserva legal o, al menos, a una justificación suficiente y adecuada que quede claramente plasmada en el expediente de contratación. Únicamente de esta forma se podrá exigir como un requisito de solvencia técnica la incorporación al contrato de personas con unas determinadas titulaciones específicas, excluyendo otras titulaciones que pueden estar más o menos relacionadas con el objeto del contrato. El TACRC, en su resolución 319/2015, de 10 de abril, expresa esta circunstancia en los siguientes términos:

“Es importante destacar que no se trata del reconocimiento de un derecho a la igualdad de todos los profesionales, sino de aquéllos que tienen la “capacidad técnica real para el desempeño de las respectivas funciones”, elemento éste que, a falta de previsión normativa, debe ser objeto de un análisis casuístico. En definitiva, la jurisprudencia rechaza el monopolio de competencias a favor de una profesión técnica determinada al mantener la necesidad de dejar abierta la entrada a todo título facultativo oficial que ampare un determinado nivel de conocimientos técnicos”.

BEDERATZIGARRENA.- Hala ere, kasu honetan, Auzitegi honek uste du AKPAren ezaugarrien taulako 14.3 puntuan xedatutakoak ez duela printzipio hori urratzen edo murrizten, betiere printzipio hori kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak errespetatuz interpretatzen bada.

NOVENO.- Ahora bien, en el presente caso, este Tribunal considera que lo dispuesto en el punto 14.3 del cuadro de características del PCAP no vulnera ni restringe este principio, siempre que se realice una lectura del mismo respetuosa con los principios que rigen la contratación pública.

Errekurtsoa jarri duen elkartearen abiapuntua puntu horretan xedatutakoaren interpretazio murriztailea da, eta uste du gizarte hezitzaileei egiten zaien erreferentzia ezinbestean identifikatu

La asociación recurrente parte de una interpretación restrictiva de lo dispuesto en este punto, y considera que la referencia a los “educadores sociales” ha de identificarse

behar dela unibertsitate mailako titulazio espezifikoko batekin, hau da, gaur egun Gizarte Heziketako graduarekin edo aurreko unibertsitate-titulazioen sistemaren baliokidea den titulazioarekin. Hala ere, departamentuak errekursoari buruz egindako txostenak aukera ematen du elkarte errekurtsogilearen aldarrikapena integratzeko, errekursoan eskatzen den bezala, baldintza agiriak baliogabetu beharrik izan gabe.

Alde batetik, egia da ezaugarrien taulako 14.3 puntuaren idazketak kaudimen baldintza gisa gutxienez bi gizarte hezitzaile eskatzen dituela teknikarien artean, baina egia da, era berean, ez administrazio klausula partikularren agiriak ez preskripzio teknikoaren agiriak ez dutela berariaz eskatzen lanbide-profil bat edo titulazio espezifikoko bat izatea haien prestakuntza kaudimen hori egiaztatzeko nahikoa dela jotzeko. Are gehiago, administrazio klausula partikularren agiriaren ezaugarrien taulak berak berariazko atal bat du (15. puntu), baliabideak nahitaez atxikitze konpromisoa zehazten duena, eta betekizun bakarra ezartzen du: gutxienez kontratuari atxikitako bi pertsonak elebidunak izatea. Hau da, puntu horretan ere ez da aipatzen hezitzaile horien eginkizunak betetzeko titulazio espezifikoko baten beharra.

Garrantzitsua da kontu hori nabarmentzea, kasu hori eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak martxoaren 23ko 116/2021 epaian aztertutako kasua bereizi ahal izateko. Kasu hartan, kontratuaren agiri teknikoak kontratuaren xede ziren zerbitzuak ematea lotzen zuen unibertsitate-titulazioaren arabera definitutako profil profesional batzuekin. Zehazki, psikologian, gizarte lanean, gizarte heziketan edo zuzenbidean espezializatutako profesionalak identifikatzen ziren.

Kasu honetan, aldiz, preskripzio teknikoaren agiriko 6. atalak, kontratuaren xede den prestazioaren ezaugarriei buruzkoak, soilik ezartzen du bi hezitzaile behar direla taldean, profesional horiei ere titulazio edo prestakuntza espezifikorik eskatu gabe.

necesariamente con una titulación específica y de nivel universitario, como es la que actualmente corresponde al grado en Educación Social o su equivalente en el anterior sistema de titulaciones universitarias. Sin embargo, el informe del departamento acerca del recurso permite integrar la reivindicación de la asociación recurrente sin tener que proceder, como se solicita en el recurso, a una anulación de los pliegos.

Por un lado, aunque es cierto que la redacción del punto 14.3 del cuadro de características exige como requisito de solvencia un mínimo de dos educadores sociales dentro del personal técnico, es igualmente cierto que ni el PCAP ni el PPT exigen expresamente un perfil profesional o una titulación específica para considerar que su formación es suficiente a los efectos de acreditar esa solvencia. Es más, el propio cuadro de características del PCAP contiene un apartado específico (punto 15) en el que se concreta el compromiso de adscripción obligatoria de medios, y no se establece más requisito que el carácter bilingüe de las dos personas adscritas con carácter mínimo al contrato. Es decir, tampoco en este punto se menciona la necesidad de una titulación específica para ejercer las funciones de esos educadores.

Es importante destacar esta cuestión para poder distinguir este supuesto del analizado por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del TSJPV en su sentencia 116/2021, de 23 de marzo. En aquel supuesto, el pliego técnico del contrato vinculaba la prestación de los servicios objeto del mismo con una serie de perfiles profesionales definidos en atención a su titulación universitaria. Se identificaban, en concreto, profesionales especializados de la Psicología, Trabajo Social, Educación Social, o incluso el Derecho.

En el presente caso, sin embargo, el apartado 6 del PPT, referido a las características de la prestación objeto del contrato, establece únicamente la necesidad de disponer de un equipo de dos “educadores”, sin exigir tampoco para estos profesionales una titulación o formación específica.



Titulazio posible bati buruzko erreferentzia bakarra –zeharka– kontratazio memoriaren eranskin ekonomikoan dago. Eranskin horretan, urteko kostuari dagokionez, erdi mailako bi teknikariren soldata hartzen da kontuan, baina hori ezin da hartu titulazio espezifikorearen eskakizuntzat, baizik eta kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua egungo kostua kontuan hartuta zentzuz kalkulatzeko erreferentzia gisa; nolana ere, gehieneko aurrekontutzat hartu behar da.

Hezitzaile horiei eskatzen zaien prestakuntza edo titulazioa, beraz, ez dago argi zehaztuta baldintza agerietan, baina auzitegi honen ustez, balizko zehaztugabetasun hori ez da muga gisa interpretatu behar Gizarte Heziketako unibertsitate titulurik ez duten profesionalentzako, alderantziz baizik.

Azpitarratu behar da egokitasun-printzipioak eragotzi egiten duela eskusibotasun zorrotzetik abiatzea edo titulazio jakin batzuetarako erreserba batetik abiatzea, baldin eta erreserba edo eskusibotasun hori behar bezala babestuta edo justifikatuta ez badago. Kasu honetan, baldintza agerietan halako zehaztapenik ez dagoenez, ez eta kontratazio espedientean horretarako azalpenik edo justifikaziorik ere, ez dago arrazoirik interpretatzeko kaudimen teknikoa egiaztatzeke eska daitekeen prestakuntza Gizarte Heziketako unibertsitate titulu baten bidez lortutakoa baino ez dela izan behar, eta nahikoa izango da kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko behar diren ezagutza teknikoak ematen dituen prestakuntza egiaztatzea. Hori egin ahal izateko, kontuan hartu behar dira lizitazioan parte hartzen duten enpresek aurkeztutako eskaintzetan sartuta dauden pertsonen egiaztatzen duten prestakuntza-tituluarik dagozkion ezagutzak eta konpetentziak.

AGISAS elkarteak azterketa lan hori egin du, eta errekurtso idazkian islatu du, ordezkatzeko dituen kolektiboek dagokienez (gizarteratzaileak eta

La única referencia –indirecta– a una posible titulación se encuentra en el anexo económico de la memoria de contratación, en el que, a efectos del coste anual, se tiene en cuenta el salario de dos personas técnicas de grado medio, pero esto no puede ser considerado como una exigencia de titulación específica, sino como una referencia a los efectos de calcular racionalmente el presupuesto base de licitación del contrato teniendo en cuenta el coste actual; presupuesto que, en todo caso, debe ser considerado como máximo.

La formación o titulación exigida a estos educadores no se encuentra, por tanto, claramente determinada en los pliegos, pero entiende este Tribunal que esta posible indeterminación no debe ser interpretada como una limitación para los profesionales que no dispongan de una titulación universitaria en Educación Social, sino justamente en sentido contrario.

Se ha de insistir en que el principio de idoneidad impide partir de una rigurosa exclusividad o de una reserva a determinadas titulaciones si esa reserva o exclusividad no está debidamente amparada o justificada. En este caso, no existiendo tal determinación en los pliegos, ni ninguna explicación o justificación para ello en el expediente de contratación, no hay motivo para interpretar que la formación exigible a los efectos de acreditar la solvencia técnica deba ser exclusivamente la adquirida mediante una titulación universitaria en Educación Social, y será suficiente con acreditar la formación que otorgue los conocimientos técnicos necesarios para ejecutar debidamente el objeto del contrato. Para poder realizar esta operación, se habrán de tener en cuenta los conocimientos y competencias que corresponden al título formativo que acrediten tener las personas incluidas en las ofertas presentadas por las empresas que participen en la licitación.

AGISAS ha realizado esa labor de análisis y la ha plasmado en el escrito de recurso en relación con los colectivos a los que representa (Integradores e

animatzaile soziokulturalak). Beraz, azterketa horretatik ondorioztatzen den bezala, dagozkien curriculumak arautzen dituzten dekretuetan titulazio horiek lortzen dituztenei aitortzen zaizkien lanbide gaitasunek aukera ematen dute pentsatzeko, administrazio klausula partikularren agirian eskatzen den kaudimena egiaztatzeko, ez dutela behar titulazio ofizialik ez dutenei eskatzen zaien gutxieneko bi urteko esperientzia. Errekurtsoaren xede den lizitazioaren esparruan aukera hori onartzeko, beharrezkoa da interpretatzea ezaugarrien taulako 14.3 puntuak kontratua egikaritzeko duten pertsonen gaitasuna egiaztatzeko bi modu desberdin jasotzen dituela: i) hezitzaile izaera zentzu zabalean egiaztatzea, eginkizun hori garatzeko prestakuntza egoki eta nahikoaren bidez; ii) haur, nerabe eta gazteen sustapenaren esparruan gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatzea. Lehenengo kasuan, kontuan hartu behar da AGISAS elkarteak ordezkatzeko dituzten lanbide heziketako tituladunak AKPAk eta PTAk oro har «gizarte hezitzaile» edo «hezitzaile» gisa kalifikatzen dutenaren barruan daudela; eragiketa hori baldintza agiriak zentzuz interpretatuz eta kontratazioa arautzen duten printzipioak errespetatuz egin daiteke.

Interpretazio hori AGISASek planteatutakoa baino logikoagoa eta proportzionatuagoa dela dirudi; izan ere, errekurtsoaren azpian dagoen interpretazio murriztaileak arrazoizkotasun-judizio minimorik onartzen ez duten bi aukera planteatzen ditu: haur, nerabe eta gazteen sustapenaren eremuan gutxienez bi urteko esperientzia izatea Gizarte Heziketako unibertsitate titulazio batekin parekatuko litzateke, hizpide ditugun ondorioetarako soilik bada ere.

Lizitazioa sustatzen duen departamentuak proposatutako interpretazioak, arrazoizkoagoa izateaz eta egokitasuneko sarbide-askatasunaren printzipioarekin bat etortzeaz gain, kontratazio publikoa arautzen duten gainerako printzipioak ere errespetatzen ditu. Printzipio horiek kontuan hartzen dira lizitazioa arautzen duten agiriak prestatzeko, eta kontratazio organoak eta

Integradoras Sociales y Animadores y Animadoras Socioculturales), de manera que, tal y como se depende de ese análisis, las competencias profesionales que se reconocen a las personas que obtienen estas titulaciones en los decretos que regulan los correspondientes currículos permiten considerar que, para acreditar la solvencia exigida en el PCAP, no precisan de la experiencia mínima de dos años que se exige a las personas que carecen de una titulación oficial. Para admitir esta posibilidad en el marco de la licitación objeto del recurso, resulta preciso interpretar que el punto 14.3 del cuadro de características contempla dos formas diferentes de acreditar la capacitación de las personas que van a ejecutar el contrato: i) acreditar la condición de educador en sentido amplio mediante una formación adecuada y suficiente para desarrollar esa función; ii) acreditar una experiencia mínima de dos años en el ámbito de la promoción de la infancia, adolescencia y juventud. En el primero de los casos, se ha de considerar que los titulados en formación profesional a los que representa AGISAS se encuentran dentro de lo que tanto el PCAP como el PPT califican de forma genérica como “educadores sociales” o “educadores”; operación que puede realizarse mediante una interpretación de los pliegos razonable y respetuosa con los principios que rigen la contratación.

Esta interpretación parece, en efecto, más lógica y proporcionada que la planteada por AGISAS, puesto que la interpretación restrictiva que subyace en el recurso plantea dos alternativas que no soportan un mínimo juicio de razonabilidad: una experiencia mínima de dos años en el ámbito de la promoción de la infancia, adolescencia y juventud se equipararía, aunque sólo sea a los efectos que nos ocupan, con una titulación universitaria en Educación Social.

La interpretación propuesta desde el departamento que promueve la licitación, además de resultar más razonable y conforme con el principio de libertad de acceso con idoneidad, respeta también el resto de principios que rigen la contratación pública. Estos principios no sólo informan la elaboración de los pliegos que rigen la licitación, sino que también vinculan en su actuación a los



kontratazio mahaiak ere lotzen dituzte beren jardunean. KEAANK 575/2021 ebazpenean adierazi bezala, mahaiak bermatu behar du, arauak ez ezik, kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak ere betetzen direla, bereziki berdintasuna, diskriminaziorik eza eta lehia askea, eta AKPAk interpretatu behar ditu printzipio horiek benetan gauzatzeko moduan, eta, beharrezkoa izanez gero, klausulen interpretazioa aipatutako doktrinara egokitu behar du. Baieztapen hori, esan bezala, ahaleginik egin gabe zabal daiteke kontratazio organoetara.

Aurrekoarekin bat etorritik, auzitegi honek arrazoizkotzat jotzen du departamentuaren txostenean azaldutako interpretazioa; izan ere, aukera posibleen artean, esan bezala, berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta lehia askearen printzipioen aplikazioari hobekien erantzuten diona defendatzen du.

Azkenik, interpretazio horri esker, lizitazioari eutsi ahal izango zaio, ez baita beharrezkoa administrazio klausula partikularren agiria baliogabetzea elkarte errekurtsogilearen eskaerari erantzuteko; horrela erabakiz gero berrabiarazi egin beharko bailitzateke kontratazio prozedura osoa.

HAMARGARRENA.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsua aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Ezestea GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtsu berezia.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera,

órganos y a las mesas de contratación. Tal y como señala el TACRC en su resolución 575/2021, *“la mesa debe garantizar el cumplimiento, no sólo de las normas, sino también de los principios que rigen la contratación pública, singularmente los de igualdad, no discriminación y libre concurrencia, así como interpretar los PCAP del modo que esos principios tengan realización efectiva, ajustando, si así fuere necesario, la interpretación de sus cláusulas a la referida doctrina”*. Afirmación que, como decimos, puede extenderse sin esfuerzo a los órganos de contratación.

De acuerdo con lo anterior, este Tribunal considera razonable la interpretación expuesta en el informe del departamento, ya que, de entre las alternativas posibles, defiende aquella que mejor responde, como decimos, a la aplicación de los principios de igualdad, no discriminación y libre concurrencia.

En último término, esta interpretación permite mantener la licitación, al no resultar preciso un pronunciamiento que anule el PCAP para atender la petición de la asociación recurrente; decisión esta última que obligaría a reiniciar todo el procedimiento de contratación.

DÉCIMO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo

ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Donostia, 2023ko urtarrilaren 26a.

59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

San Sebastián, 26 de enero de 2023.